



GEHIGARRIA: KRISIAZ II

Apirilean zehar deustuarren lekukotzak biltzen aritu gara. PREST! 212 aldizkarian batzuk jaso genituen eta gehigarri honetan bildu ditugu gainerakoak. Kontuan hartu testu guztiak konfinamendua arintzen hasi baino lehenagokoak direla.



Javi Diez-Caballero

Sardiniatik

Italiako iparraldetik etorri berriak ginen, Milanen agertu berri zen koronabirusaren alerta piztu zenean. Bertan egon eta aste bat geroago, Veneziako inauteriak bertan behera utzi zituztela entzun genuen. Hala ere, bolada hartan alerta gehiegikeria zela uste genuen, azken finean, “gripea bezalako gaixotasun bat” besterik ez zen. Beraz, martxoan lagun bat bisitatzeko Londrese-rako neukan bidaia egitea erabaki nuen.

Zortea izan nuen Cagliari (Sardinian) egiten ari nintzela Erasmusa, bertan mugak geroxeago itxi zituztelako, bestela han gelditu behar izango nukeen, edo Bilborako bidaia hiper-garestia erosi. Cagliariako aireportura iristean, tenperatura neurtzeko aparatu batzuekin seinالاتu gintuzten jantzi espazial antzeko batekin zeuden langile batzuek eta 15 egunetan etxetik ez irteteko konpromisoa sinarazi ziguten paper batzuetan. Ziurrenik, Italiara heldu ziren azkenetariko hegaldi batetan gentozen, jada herrialde osoa be-

rogeialdi orokorrean baitzegoen hiru egun lehenagotik.

Ezin naiz kexatu. Marco nire pisukidearekin oso ondo moldatzen naiz eta konfinamenduko lehenengo asteak milaka gauza egiten pasatu ditugu. Marco DJa da, eta astero auzokideentzako kontzertuak egiten ditugu. Gainera, goiko pisuan bizi gara eta teilatura igo gaitezke eguzkia hartu edota kirola egitera, eta, nola ez, aprobetxatu dut Italiako sukaldaritza praktikan jartzeko.



Iñigo Calleja

Dublinetik

Hemen neurriak malguagoak dira: kalera irten gaitezke, beti ere, bi kilometroko distantzia gainditu gabe, gehienez lagun batekin, eta bi metroko segurtasun distantzia errespetatuz. Beraz, konfinamendua ez da Bilbon bezain gaitza.

Asko amorratzen nau jendearekiko hurbiltasun-ezak, batez ere, lagunekin aurrez aurre ezin geratzeak eta familiari bisita ezin egi-

teak. Halere, onartu beharra daukat egoera honek uste baino hurbiltasun telematiko handiagoa ekarri duela. Bada, aspaldi hitz egiten ez nuen lagunekin eta taldeekin berriro harremanetan ipinarazi nau.

Itxialdiak gauza onak ere ekarri dituela pentsatu nahi dut. Lana eta ikasketak urrutetik egiteko normaltasunean eta malgutasunean urrats handiak egin direla uste dut, esaterako, etorkizunean oso baliagarriak izan daitezkeenak.



Andoni Irigoien
Saharatik

Jakin ezazue Tarfayan iturri marokoarretatik bakarrik jasotzen dudala informazioa. Zuzenekoan, Sahara Mendebalde okupatuan handia zen bestela ere segurtasun indarren kontrola, eta COVID-19ak ekarri dituen aldaketak sotilak dira. Esanguratsuena, akaso, meskiten itxiera. Ramadana laster da eta jendea arduratuta dago, erritu kolektibo batzuk baimenduko ote dituzten ala ez.

Bestela, Sahara partean oso kasu ofizial gutxi daude eta nahiko lasai gabilta kaleretik saltokiak irekita dauden orduetan. Hondartzatik osteratxo bat eginda ere, militarrek kasu egin eta ezer gutxi gehiago. Maskarak derrigorrezkoak dira, baina askok ez daramatzate.

Marokori dagokionez, gobernuak nahiko garaiz agindu zituen neurri zorrotzak eta honek itxuraz batasuna piztu du gizartean, baina oreka zaila da. Gizarte-babeserako sistemak

oso ahulak dira, eta birusak kontrola gaindituz gero, triskantza eragin lezake. Bestalde, turismoa eta nekazaritza dira diru iturri nagusiak, eta bigarrena ere jota dago lehorteluz baten ondorioz. Erregeak krisiaren finantzaziorako irekiarazi zuen funts bereziaren erabilera ere ez dago argi... Batasun hauskorra, beraz.

Jon Enriquez
Madritetik

Master bat ikasten ari naiz Madrilén eta hemen harrapatu ninduen itxialdiak. Nire neba Foggian (Italia) dago Erasmus egiten, eta biok erabaki dugu gauden tokian geratzea, Deustuko etxean jende nagusia bizi delako. Gainera, hasieran bi asterako kontua zela uste genuen, eta hemen lana mantentzeko aukera gehiago nituela pentsatu nuen.

Bestalde, uste dut Madrilén krisiaren kudeaketa kaxkarra egin dutela, unibertsitate publikoan bederen. Online klaseak ezartzen asko tardatu zuten, eta ematen du ikasgai batzuk irailean ikastaro trinkoekin errekeratu beharko ditugula. Hala ere, gu ikasgai gehienak telematikoki egiten ari gara, eta espero dut egoera honek etorkizunerako balio izatea. Diru eta denbora asko gastatzen dugu unibertsitateko edo lanera joaten, online egin daitezkeen gauzak egitera.

Ni Madril hiriko kanpoaldean bizi naiz eta egoera nahiko lasaia da, ez da jenderik ikusten kalean. Supermerkatuen ordutegiak, adibidez, ez dituzte Bilbon bezainbeste murriztu. Gure etxe azpikoa 09:00etatik 21:00etara dago irekita.



Olatz Masip

Metroko langilea



Gaur, azkenengo bizpahiru hilabetetan bezala, koronabirusari buruz hitz egingo dugu. Esan behar dut nahiko pertsona baikorra naizela eta, hasieran, jende askok bezala, ez nuela pentsatzen hau guztia gertatuko zenik.

Metroko langilea naiz eta orain gogoratzen ditut lehenengo egunetan lankideekin izandako elkarrizketak. Batzuek hau guztia gertatuko zela esaten zuten, eta pixkanaka hasi ginen makinetara joaten zen jendeari beldur handiagorekin laguntzen. Momentu horretan lanean esan ziguten Norbere Babeserako Ekipoak (NBE) ez zirela beharrezkoak, gelak eta zapiak helduko zirela, baina inportanteena eskuak asko garbitzea zela.

Handik aste betera edo, gauzak okerrera joan ziren. Ikastolan abisatu ziguten hurrengo egunetik aurrera klaseak bertan behera gertatuko zirela, beste arazo bat familia askorentzat lanak eta umeak etxean uztartu beharra. Asteburu horretan etxean geratzeko eguna heldu zen eta gu, familia-arazoak direla-eta, Hernanin harrapatu gintuen, baina nik astelehenean lanera joan behar nuen!

Handik egun batzuetara, gauak kendu ziztuzten eta handik gutxira geltoki asko itxi. Geltokietan gero eta bidaiari gutxiago zeuden, gehienak ospitaletara lan egitera zihoazenak, Gurutzetara, San Mamesera, edo

supermerkatuetan lan egiten duen jendea. Jende asko metroa ez hartzen saiatzen ari da eta beste asko etxean dago lan egiten. Ondorioz, langile asko etxean geratu behar izan dugu. Lana gehienon artean banatzea erabaki genuen eta lan egun batzuetan etxean geratzen gara, baina lanerako prest, badaezpada. Bulegoetako langileak telelanean ari dira.

Tarte horretan gelak eta desinfektatzaileak heldu ziren metrora eta maskara bat eman ziguten leihatilatik kanpo jendea laguntzera joan behar dugunean erabiltzeko. Metroa beharrezko zerbitzua denez, ez da geldituko. Lanera joan ahal izateko baimen bat eman ziguten.

Iker Arteaga Bustinza

Ertzaina



Nahiz eta deustuarra ez izan, ondo ezagutzen dut auzoa, tomateroen auzoa, hain bizia eta alaia dena. Egun hauetan, joan zaigu kaleko bizitza, Madariaga etorbidean egoten den giroa ez da ikusten, ezta Done Petri plazan ikasleen joan-etorria ere. Alai eta zaratsatu ikusten diren kaleak, orain, triste, goibel eta hutsik ikustea, amets gaiztoa iruditzen zait askotan.

Gure arteko elkarbizitzak aurrera dirau, kalean ez bada ere, gure etxeen barnean izaten dira gorabeherak orain. Senar emazte arteko haserreak, guraso eta seme-alaben arteko tirabirak, bakardadean bizi direnen

tristurak eta gaixotasun psikiatrikoak dituztenen arazoak. Hori da, egun hauetan, ertzeenok daukagun erroka. Gure jarduna eremuz aldatu dute, orain etxebizitzetan dira gehienak, ez da atsegina. Batzuetan bitartekari bilakatzen gara, baina beste askotan gogor jokatu beharra dago. Betirako eramango ditut irudi gordin asko nire goan itsatsita.

Nire zuenganako miresmena aitortuko dizuet, zuen jardura bikaina izaten ari da, gauza eder asko ere ikusi ditut Deustuko kaleetan eta, batez ere, zuen leiho eta balkoietan. Gauero, mediku eta erizainei merezitako txalo omenalditxoak egiteko irrikaz ikusten zaituztet. Nire txaloak zuentzat dira, bikainak zaretelako, zuen jarrera paregabea izan da. Denon artean lortuko dugu. Ziur nago bizitzak ekarri digun ikasgai latz hau ondo ulertzeko gai izango garela eta etorkizunean baliagarri izango zaigula.

Irene Ruiz eta Argia Kortabitarte

Gazte Koordinadora Sozialistako kideak

Covid-19a eta langile klasearenganako jazarpena

Hilabete eskas igaro da gure etxeetan sartuta egotera derrigortu gintuztenetik. Osasun-krisiaren aitzakiapean, martxoaren 14an Espainiar Estatuak alarma-egoera deklaratu zuen eta, geroztik, mundu mailako oligarkiak ustez gure osasuna babestera begirako neurriak inposatu ditu. Neurriok, ordea, krisi kapitalistaren testuinguruan ulertu behar dira, langileon lan eta bizi-balditzen okerragotzean sakontzea baino ez dutelako bilatzen; aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteen (ABEE), enplegu-erregulazio espedienteen (EEE) edota etorkizuneko etxegabetzeen bidez.

Krisiaren ondorio den langile klasearen proletarizazio progresiboa, dena den, askatasun sozial eta politikoen urraketaekin harremanetan ulertu beharra dago. Kaleen militarizazioa normaldu dute, baita langile-klasearen gaineko sumisio eta kontrola handitu ere. Horren adibide dira jazarpen

polizialen ondorioz areagotu diren isun-ko-puruak, mehatxuak, jipoiak eta atxilotetak. Bada, zein ez da urduri jarri erosketak egiterako bidean indar polizialen presentziarekin? Ukaezina da langileriaren auto-antolakuntza oztopatzera bideratutako mekanismoak ere badirela.

Hala, Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) *Burgesiaren ofentsiba gelditu!* lelopean abiatutako kanpaina politikoak mozorrotu duten ofentsibaren benetako izaera agerian uztea eta geruza kolpatuenak babesteko tresnak sortzea du helburu. Azken horri dagokionez, etxebizitza, lan eta jazarpen polizialen arloetan jarduteko bitartekoak antolatzen hasi gara. Ildo honetan kokatzen da Bilbon hainbat eragilek *Jazarpenari bidea itxi* izenpean martxan jarri dugun dinamika. Egoera salatzearekin batera, jazarpen polizialen aurrean babesteko tresnak antolatzea dugu helburu, langile antolakuntzarako ezinbestekoak diren askatasun-politikoak lortzea bidean ekarpena egiteko asmoarekin.

